


NAZIOARTEKO MERKATARITZA

Nazioarteko merkataritza sendo eta maximotan dago

Munduko esportazioen bilakaera

Bolumen indizea. 2005T1=100



Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) arabera, aurtengo bigarren hiruhilekoan munduko esportazioak %3,2 hazi ziren bolumenean, hots, prezioen eta truke tasaren aldakuntzak kenduta. Tasa hori sendoa da oraindik eta indizea, 2005eko 100 balioaren aldean, maila gorenetan (153,4) dago. Hala eta guztiz ere, bigarren moteltze jarraitua da 2017ko amaieratik jaso zen %5,4 haren ondotik. Merkataritza alorreko tentsioen gorakada eta merkatu garrantzitsu batzuetan kreditua lortzeko baldintzak gogortu izana merkataritzaren hazkundea galgatzaz hasi dira eta joera hori aurtengo gainontzeko hilekoetara ere hedatuko dela aurreikusten da. Hori dela eta, MMAk beherantz zuzendu du salgaien munduko merkataritzaren bolumenerako espero den hazkunde tasa. Kalkulu berrien arabera, 2018an munduko merkataritza %3,9 areagotuko da, apirilean iragarri zen %4,4 haren azpitik. Hala ere, oraingo aurreikuspena garai hartan adierazi zen %3,1etik %5,5era doan urkilaren barruan dago.


SALGAIEN MERKATARITZA BOLUMENETAN

	2016 III	2016 IV	2017 I	2017 II	2017 III	2017 IV	2018 I	2018 II
ESPORTAZIOAK								
Guztira	1,5	1,8	4,2	4,5	5,4	5,4	3,8	3,2
Ipar Amerika	0,7	1,8	3,9	5,1	2,0	4,0	3,6	6,0
Hego eta Erdialdeko Amerika	-0,6	-3,8	-0,4	1,0	6,6	6,5	2,9	-0,7
Europa	0,7	1,8	3,0	3,2	4,7	4,2	2,8	2,8
Asia	3,5	3,6	8,3	6,7	7,7	6,4	4,7	3,8
Beste eskualdeak	0,2	-1,8	-2,2	2,1	4,3	8,7	5,1	0,4

Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).


Salgaien esportazioak eskualdeka

Bolumen indizea. 2005T1=100



Salgaien esportazioak eskualdeka

Bolumen indizea. 2005T1=100



Eremuka, Ipar Amerikak lortu zuen esportazioen hazkunde biziena (%6,0) aurtengo bigarren hiruhilekoan, ondoren Asia (%3,8) eta Europa (%2,8) zetoze. Hego eta Erdiko Amerikak bakarrik erakutsi zuen portaera negatiboa (%-0,7), Argentinako salmenten jaitsieragatik eta Brasileko bultzada txikiagotatik.


Analisia Europar Batasunean fokatuta, eremutik kanpo eginiko salmentak berriro izan ziren esportazioen bultzagile nagusiak, nahiz eta eremu barruko salerosketak ere erritmo nabarmenean areagotu ziren. Halere, EB kanpoko indizea 148,5ean kokatu zen aipatu den epealdi horretan, munduko ekonomiaren esportazioek eskuratu duten 153,4tik hurbil. Aitzitik, EB barneko indizea 124,8an geratu da, oraindik munduko indizetik urrun, baina bere serie historikoaren balio altuenetan.

EUROPAR BATASUNEN SALGAIEN ESPORTAZIOA BOLUMENEAN. Urte arteko tasak

	2016 III	2016 IV	2017 I	2017 II	2017 III	2017 IV	2018 I	2018 II
Guztira	0,7	1,8	2,9	3,0	4,7	4,2	3,1	3,1
EB barne	2,5	2,2	2,2	2,4	3,8	4,3	2,8	3,0
EB kanpo	-2,4	1,2	4,0	4,0	6,3	4,0	3,6	3,4

Salgaien inportazioak eskualdeka

Bolumen indizea. 2005T1=100



Salgaien inportazioak eskualdeka

Bolumen indizea. 2005T1=100

